



Bidasoa - Txingudi

TOKIKO KOMUNIKABIDEEN ALORREAN EUSKARA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

2025rako DEIALDIA

1 - ERREGIMEN JURIDIKOA

Deialdi honek honako xedapen hauek izango ditu arau:

TOKIKO KOMUNIKABIDEEN ALORREAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK, Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren aurrekontua gauzatzeko oinarrietan jasoak.

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru laguntzei buruzkoa
- 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Diru laguntzen Legearen Araudia onartzen duena.

2 - DEIALDIKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Laguntza horietarako diru laguntza ekonomikoa 7.000 euro izango dira eta 433.01.335 Euskara aurrekontu aplikazioan daude jasota.

Deialdi honetan araututako diru laguntzen muga diruz lagundu beharreko jardueraren kostua da, eta beste laguntza publikoekin batuta ezin izango ditu jardueraren kostuak gainditu. Horrenbestez, diru laguntzaren zenbatekoaren gehieneko muga murriztu egingo litzateke onuradunarentzat superabita gertatuz gero.

3 - HELBURUA

Deialdi hau Bidasoa-Txingudi eskualdeko 3 herrietan, Irun, Hondarribia eta Hendaia, hedapena duten pertsona fisikoentzat, enpresentzat edo elkarteentzat tokiko komunikabideen esparruan, norgehiagokako erregimenean, euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzak arautzea dute xede, eta eskualdeko informazioko edukiak argitaratzea dute helburu, deialdian zehaztutako irizpideak eta baldintzak kontuan harturik.

Ikusentzunezkoak	Argitalpenak	Aldizkari digitalak
Programa espezifiko bat, gutxienez 30 minutukoa, zehaztutako irizpideak eta baldintzak kontuan harturik	zehaztutako irizpideak eta baldintzak kontuan harturik	zehaztutako irizpideak eta baldintzak kontuan harturik



Bidasoa - Txingudi

4 - ONURADUNAK ETA BALDINTZAK

1- Deialdi honetan araututako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte kazetaritza lanak egiten dituzten eta Irunen, Hondarribian edo Hendaian dauden pertsona fisikoek edo juridikoek, deialdi honetako oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

2- Baztertzekoak.

Deialdi honen aplikazio esparrutik kanpo geratuko dira honako jarduera hauek:

- a) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.
- b) Ez dira kontuan hartuko eskubide konstituzionalak urratzen dituzten elkarte edo erakundeetatik datozen proposamenak. 14. Art. (jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi arrazoiengatik diskriminatzea).
- c) Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren aurreko bi ekitaldietako deialdietan diru-laguntzen onuradun izan diren elkarte edo erakundeek egindako proposamenak ez dira aintzat hartuko, baldin eta aurrez jasotako diru-laguntzari dagozkien gastuak behar bezala eta epeetan justifikatu ez badituzte.

5 - BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Diru laguntza hauek ez dira bateragarriak izango Irungo, Hondarribiko eta Hendaiko Udalen laguntzekin, haien xedea deialdi hauetan jasotako bera bada. Hala ere, diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira nazioko edo Europar Batasuneko edozein administrazioetatik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, xede bera bada ere.

Beste diru-laguntzarik eskuratzen bada, diru-laguntzen guztizko zenbatekoa ezingo da laguntzen diren jardueren kostua baino handiagoa izan; handiagoa bada, deialdi honen barruan emandako diru-laguntza txikitu egingo da, dagokion bezainbat.

6 - ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

Diru-laguntza hau lortu nahi dutenek dagokion eskaera egin beharko dute, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak emaniko ereduaren arabera eta, bertan zehazten den dokumentazioa eta atxikitako eranskinak behar bezala osatuz.



Bidasoa - Txingudi

Eskaera posta-elektronikoz bidali ahal izango da consorcio@bidasoa-activa.com helbidera idatziz, epe-amaierako eguneko 14:00ak baino lehen edo Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bulegoetan aurkeztu astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik, Ducoureau Jauregian, Irungo Hendaia kaleko 8an, 20301 PK-an, diru-laguntzen iragarkia GAO-n argitaratu denetik hilabeteko epean. Honako dokumentu hauek aurkeztuko dituzte eskatzaileek:

- a) 1. eranskina: Eskabide-orria, behar bezala osatuta.
- b) NANaren fotokopia eta, komunikabide baten ordezkari gisa jarduten bada, hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
- c) Komunikabidearen ezaugarriei buruzko txostena.
- d) Gastu eta sarreraren txosten zehatza, azpiegitura, langileria gastuak eta abar, eta diru-laguntza bidezko sarrerak, ekarpenak, publizitatea bidezko sarrerak eta abar argi zehaztuta. Partzuergoari eskatzen zaion zenbatekoa jasoko da halaber.
- e) Ogasunarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dira eta besteren konturako langileak izanez gero, Gizarte Ongizateari beharreko ordainketak egiten zaizkiola egiaztatuko da.
- f) Argitalpenak badira, aurtengo urtean argitaratutako aleak.
- g) Ikus-entzunezko komunikabideen kasuan, a), b), c) eta d) atalez gainera, komunikabidean euskarari aurre emango den tratamendua azaltzen duen txostena aurkeztuko da, gutxienez honako alderdi hauek adierazita:
 - Osorik edo zati bat euskaraz egiten diren programa guztien zerrenda, izena, ematen diren eguna eta ordua, eta programaren eta euskaraz ematen den zatiaren iraupena zehaztuta.
 - Programazioaren denboran euskaraz emanikoaren bolumenaren portzentajea, guztizko programazioarekiko.
- h) 38/2003 Diru-laguntzen legearen 13.2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako egoeratan ez dagoela dioen Zinpeko Aitorpena.

Deialdi honetan, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago edo eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituela ikusten bada, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio okerrak zuzen ditzan edo beharreko dokumentuak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio, hori ez badu egiten, bere eskaera bertan behera utziko dela, Herri Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68 artikulua aurreikusitakoaren arabera.

Dokumentazioa ez bada aurkeztzen, galdu egingo da diru-laguntzaren onuradun izateko aukera. Era berean, datuak ezkutatu edo datu faltsuak ematen badira diru-laguntza horiek eta, hala behar badu, ondorengoak jasotzeko eskubidea galduko da.



Bidasoa - Txingudi

7 - DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA ETA ERABAKIA HARTZEKO ORGANO ESKUDUNA

Zuzendaritza Batzordeko presidenteak edo honek eskuordetzea ematen duen pertsonak eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren euskara lan-mahaiko kideek (hiru udalerrietako euskara teknikariek eta ordezkariak eratua) osaturiko epaimahaiak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta lan-mahai horrek eginiko erabakirako proposamena ikusita, eskumena duen Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaio, eta Partzuergoko Lehendakariak hartuko du beharreko erabakia.

Eskaerak epaimahaiak baloratuko ditu, ondoren aipatzen diren irizpideei erreparatuz: Hedabidearen helera edo hedadura eta Bidasoa-Txingudi eskualdea osatzen duten hiru hirietan duen eragina eta haien parte-hartzea, aldizkakotasuna, Euskeraren erabilera egokia eta maila, Euskeraren presentziaren proportzioa.

Eta irizpide hauek honela xehetzen dira:

Kontuan-hartzeko irizpideak		Adierazleak
Kanporaketarako baldintzak		Ikus-entzunezko hedabideetan eta aldizkari digitalen kasuan, ezinbestekoa izango da, karatulan eta informazio orokorrean, Bidasoa-Txingudi eskualdeko edo hiru udalerrietako hedabide bat dela adieraztea. Argitalpenak: Difusio-zerrendan hiru udalerrien arteko oreka egon beharko da.
IRISGARRITASUNA: Gehienez 20 puntu		
10 puntu	Udalerriei buruz ematen den informazioaren arteko oreka	3 udalerrietako berrien estaldura = 10 puntu Mugaz-gaindiko gutxienez 2 udalerrietako berrien babesa = 2 puntu Mugaz-gaindiko estaldurarik gabe = 0 puntu
10 puntu	Komunikabidearen erabilpen maila	Ikus-entzunezkoetan: Eskualdeko poblazioaren %50-a baino gehiagoko erabilpen-maila = 10 puntu. Eskualdeko poblazioaren gutxienez %20-aren erabilpen-maila = 2 puntu
		Argitalpenak: Hilabetekaria = 10 puntu Gutxienez hiruhilabetero = 5 puntu
		Aldizkari digitalak: Bisita kopurua Hilean 3.001 bisita edo gehiago = 10 puntu Hilean 1.001 eta 3.000 bisita artean = 5 puntu Hilean 100 eta 1.000 bisita artean = 2 puntu



Bidasoa - Txingudi

<u>MAIZTASUNA.</u> Gehienez 30 puntu		
30 puntu	Maiztasuna	Ikus-entzunezkoetan: egunean ekoizten den ordu kopurua 5 ordu edo gehiago = 30 puntu 2 ordu edo gehiago = 5 puntu
		Aldizkariak: argitalpenen maiztasuna Astekaria= 30 puntu Hilabetekaria = 10 puntu Gutxienez hiruhilabetekoa = 5 puntu
		Aldizkari digitalak: berrien eguneratzea Astean 20 berri edo gehiago = 30 puntu Astean 5 berri edo gehiago = 5 puntu
EUSKARAREN ERABILPEN EGOKIA. Gehienez 30 puntu		
15 puntu	Euskarak komunikabidean duen presentzia, ehunekotan.	Euskarazko edukiaren portzentajea: %100-eko portzentajea (komunikabide elebakarrak) = 15 puntu Gutxienez %50eko portzentajea (komunikabide elebidunak) = 5 puntu Gutxienez %33ko portzentajea (hirueledun komunikabideak) = 1 puntu
15 puntu	Berrien sorkuntzarako euskararen erabilpena	Berriak euskaraz ekoiztea = 15 puntu
		Beste hedabide batzuetako berrien egokitzea eta integrazioa = 5 puntu.
EKOIZPENA. Gehienez 20 puntu		
20 puntu	Ekoizpena	Ikus-entzunezkoak: euskarazko ekoizpenaren ordu kopurua Astean 20 ordu edo gehiago = 20 puntu Gutxienez 5 ordu astean = 5 puntu
		Aldizkariak: Euskaraz dagoen orrialde kopurua %100eko portzentajea = 20 puntu Gutxienez %33-eko portzentajea = 5 puntu
		Revistas digitales: número de noticias en euskera Porcentaje del 100 % = 20 puntos Porcentaje de al menos el 33 % = 5 puntos
<u>AURREKONTUA</u> 20 puntu	Urteko aurrekontu osotik euskarazko ekintzetako aurrekontuak suposatzen duena.	%100-eko erlazioa = 20 puntu %50 edo gehiagoko erlazioa = 10 puntu %33 edo gehiagoko erlazioa = 5 puntu

Diru-laguntza horiek osorik edo neurri batean eman gabe uzteko proposamena egin ahal izango du epaimahaiak. Eskaera aurkezteak ez du esan nahi berez diru-laguntza jasotzeko eskubidea duenik.



Bidasoa - Txingudi

8 - ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

DiruBidasoako Garapenerako Agentzia, S.A.ri (Bidasoa Bizirik) dagokio diru-laguntza honen deialdiak atxikitutako kudeaketa eta tramitazio administratiboa aurrera eramatea, baita diru-laguntza horiek banatu eta ematea ere, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoaren izenean eta kontura. Hori guztia, Bidasoako Garapen Agentzia S.A-ren eta Partzuergoaren artean indarrean dagoen lankidetzaren hitzarmena oinarri hartuta, Partzuergoaren jardura eta programen kudeaketa ahalbidetzen duena.

9 - DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA ETA GASTUAREN EGIAZTAGIRIAK

Esleitutako diru-laguntzaren %100 ordainduko da Partzuergoko Lehendakariaren Ebazpenaren bidez, beti ere erakunde jasotzaileak, epe-amaierako eguneko 14:00ak baino lehen consorcio@bidasoa-activa.com mail helbidera edo Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoaren bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik, Ducoureaux Jauregian, Irungo Hendaia kaleko 8an, 20301 PK-an, dokumentazioa aurkeztu eta gero:

- 1. Diru-laguntza justifikatzeko inprimakia (deialdi honekin batera doan eta Partzuergoaren egoitzan eskura dauden justifikazio-ereduen arabera).**
- 2. Eginiko gastuaren egiaztapenak (diru-laguntza jaso duen jardueraren garapenak sortutako gastuei dagozkien fakturen eta ordainagiriaren kopia) eta balantze ekonomikoa (gastu eta sarrerak).**
- 3. Memoria osoa, irizpideak eta hemen aipatutako baldintzak bete direla egiaztatuz.**

Aurkezteko gehieneko epea honako hau izango da:

- ⇒ **30 egun natural**, jardura amaitu ondoren;
- ⇒ **edo 30 egun natural**, diru-laguntza eman dela jakinarazi ondoren, jardura ebazpena baino lehen amaitu bada;
- ⇒ eta, betiere, deialdiaren urtearen hurrengo urteko **urtarrilaren 31 baino lehen**.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira:

- Ekitaldia burutzeko kontratatutako edo jarritako langile gastuak, gehieneko emandako diru-laguntzaren %50-a izanik (orduko gehieneko kostua: 35 euro eskura jarritako langile propioen kasuan – 69 euro kanpoko zerbitzu baten bidez kontratatzen bada).
- Proiektuaren komunikazio eta kartelgintza gastuak.



Bidasoa - Txingudi

- Garraio, dieta edo joan-etorri gastuak, emandako diru-laguntzaren %10 gehienez.
- Kanpo zerbitzuak emateko gastuak.
- Itzulpen eta interpretatze gastuak.
- Erabili beharreko materialak erosteko gastuak.
- Itxiera ekitaldiko catering, sari edo antzeko gastuak, emandako diru-laguntzaren %10 gehienez.
- Proiektuaren egikaritzeari lotutako gastu orokorrak (telefonía, inprimaketak, zigiluak, mezularitza, papergintza...), emandako diru-laguntzaren %5 gehienez.

Oharra: Oinarri hauen xede diren laguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako jardueraren % 100 gauzatzeko beharrezkoak diren prestazioak hirugarrenekin kontratatuz gauzatzea onartuko da.

Ez dira justifikagarritzat onartuko:

- Erakunde eskatzailearen berezko administrazio, langile edo antolaketa kostuak, jarduerarekin zerikusirik ez dutenak.
- Zuzeneko onuradunaren nominak pertsona fisikoen kasuan, edo Zuzendaritza Batzordeko kideenak erakunde eta pertsona juridikoen kasuan.
- Ostalaritza zerbitzuei dagozkien bazkarien, afarien eta bestelakoen kostuak, salbu eta diruz lagundutako jardueran parte hartzen dutenekin lotuta sortutakoak.
- Faktura edo ordainagiria egitea eragin duten jardueri dagozkien gastu oharrak.
- Lotutako pertsonen edo erakundeek egindako fakturak (erakunde onuraduna osatzen dutenak, Zuzendaritza Batzordeko kideak erakunde onuradunarekin partekatzen dituztenak...).

Bestalde, honako betebeharrak dituzte diru-laguntzen onuradunek:

- Diru-laguntzen inguruan, Partzuergoak eskatzen dituen egiaztapenak eta kontrola erraztu.
- Diru-laguntza jasotzerakoan aldaketa objektibo edo subjektiboren bat gertatzen bada, Partzuergoari jakinarazi.
- Diru-laguntza harez gainera, sektore publikotik nahiz pribatutik beste laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jasotzen badira, horren berri eman behar zaio Partzuergoari.
- Eman den xederako erabiliko da diru-laguntza.



Bidasoa - Txingudi

- Proiektua finantzatzeko funts publikoen lorpena zabaltzea, "Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak diruz lagundutako argitalpena" aipamena hiru hizkuntzetan txertatuz.
 - ⇒ Idatzizko argitalpenetan, lehentasunezko lekuan eta koloretan txertatuko da.
 - ⇒ Inprimatutako argitalpenetan, lehen orriaren % 10 gutxienez hartuz.
 - ⇒ Argitalpen digitaletan, webgunearen goiburuan, eta ikusgai egongo da nabigazio osoan.
 - ⇒ Ikus-entzunezko emisioen kasuan, hiru txertaketa egingo dira, hasieran, emisioan zehar eta amaieran, eta, hala badagokio, hiru hizkuntzetako aipamena ere sartu beharko da, azken kredituetan Partzuergoaren irudiarekin batera.

Diru-laguntza honek eskarian zehaztutako gaiak bete beharko ditu eta onuradunak, jarraian zehazten diren irizpide hauek bete beharko ditu :

- Jardueraren eduki guztia edo zati bat euskaraz izango da, programazio edo edukiaren %50 gutxienez beti ere.
- Urtean maiztasun zehatza izango du jarduerak.
- Jardueraren eguneko programazioa osorik euskaraz izango da, edo bestela, euskaraz egiten den emanaldiak maiztasun jakin eta erregularra izango du, eta programa autonomoa, edo beste programa baten atala izango da.
- Irun, Hondarribia eta Hendaian egongo da komunikabidearen entzuleriaren edo aleen tiradaren erdia gutxienez., honako hau, komunikabideek eskura dituzten estatistika-zerbitzuez baliatuz justifikatu beharko delarik.
- Hiru hizkuntzak erabiltzen dituzten komunikabideen kasuan, beste hizkuntzetan adierazten dena euskaraz ere agertu beharko da, edo gutxienez guztizkoaren 1/3 izango da.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak egin ditzakeen ikuskapen lanak onartuko ditu onuradunak.

10 - DIRULAGUNTZEN KONTROLA

Partzuergoko Euskarako lan Batzordeak, Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak eta, edozein kasutan, Partzuergoko Lehendakaritza, datuen fidagarritasuna eta diru-laguntzen erabilera zuzena egiaztatzeko beretzat gordetzen ditu egokitzen hartzen dituen egiaztapen guztiak egiteko eskubidea.



Bidasoa - Txingudi

11 - EZ-BETETZEA

Jasotako kopuruak itzuliko dira eta, hala badagokio, berandutze-interesak ordainduko dira, diru-laguntza ordaindu den egunetik hasita, honako kasu hauetan:

- a) Jasotako diru laguntzak, osorik edo zati bat, deialdi honetan eta oinarrietan aurreikusitakoak ez dauden beste jarduera batzuetarako erabiltzen badira.
- b) Diru-laguntza jasotzen denean, beharrezkoak diren baldintzak bete gabe.
- c) Deialdi honetan edo, hala badagokio, diru laguntza emateko ebazpenean zehaztutako baldintzak ez betetzea.
- d) Deialdi honetan zehaztutako epeak ez badira betetzen.

Era berean, azaroaren 17ko 38/2003 diru-laguntzen Lege Orokorren IV. tituluak arau-hauste eta santzioei buruz zehaztutako xedapenak aplikatuko zaizkie deialdi honetan eta berauen arabera emandako diru-laguntzei, eta Partzuergoko Lehendakariaren egitekoa izango da dagozkion espedienteak hasi eta erabakitzea.

12 - INTERPRETAZIOA

Deialdi honen interpretazioaren inguruan, eta emandako diru-laguntzen gauzatze eta garapenaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza oro Partzuergoko Lehendakariak erabakiko du, Zuzendaritza Batzordearen eta Partzuergoko Euskara lan Batzordearen txostenak ikusi ondoren.

Irunen, sinaduraren datan.

PRESIDENTEA,
Cristina Laborda Albolea.

CRISTINA
LABORDA
ALBOLEA -
44550706M

Firmado
digitalmente por
CRISTINA LABORDA
ALBOLEA -
44550706M
Fecha: 2025.07.11
15:49:15 +02'00'

